

noaua



AMAIA ZUBIRIA OMENDUKO DUTE LARUNBATEAN, GERORA ETORRI DIRENEI BIDEA ZABALTZEAGATIK


Usurbilgo Kantu Taldeak kantu-jira berezia prestatu du kantari zubietarraren omenez / 12-13 or.

ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

**Etumeta Literatura
Lehiaketako sariak
banatu ditu Etumeta
AEK euskaltegiak / 06**




NOAUA

**Uxue Trail
elkartasun proba
igande honetan
ospatuko da / 10-11**



NOAUA

**Sortalderen lehen
instalazioa martxan
dago, Agerialdeko
teilatuan / 18**



NOAUA

**Egurrezko ontzietan
ondutako sagardo
onena hautatzeko
eguna iritsi da / 22**



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

Usurbil
“eremu tentsionatu”
izendatzea, **alokairuaren
prezioa mugatzeko.**

Etxebizitza eskuratzeko arazoa
konpontzeko, **Euskadik plan bat du.**

**ETXEBIZITZA
ESKURATZEKO
EUSKADIKO
PLAN
INTEGRALA.**

#EUSKADIBERRIA

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y AGENDA URBANA



eremutentsionatua.euskadi.eus

Mobilizatzen segiko dute erraustegiko langileek

Zubietako erraustegiko langileek lan-baldintza duinen alde mobilizatzen segiko dute hurrengo asteotan.

Hilabete lehenago bilera eskaera erregistratu ondoren, ekainaren 1ean bildu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko jasangarritasun arloko foru diputatu Jose Ignacio Asensioekin. Langileon egoera ez da askorik aldatu eta mobilizatzen segi asmo dute. Ekainaren 15ean, erraustegiaren

sarreran elkarretaratzea egingo dute, handik ez oso urruti, espetxea inauguratuko duten astelehen horretan.

Lanuzteak ekainaren 23an eta 30ean

Beste bi lanuzte egun ere deitu dituzte, ekainaren 23rako eta 30erako, hauek bai, maiatzean zehar egin bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarian, Donostiako Gipuzkoa plazan.



Langileen egoera ez da askorik aldatu azken asteotan.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Aginagatik Zubietara lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra ekainaren 11n. Eta ekainaren 18an, Zubietatik Txokoaldera eramango dute garbigune mugikorra.

Bestalde, errefusaren hurrengo bilketa eguna ekainaren 21a izango da.

Hurrengo ibilaldi osasuntsua, herri erdigunean

Aurrerantzean, herri erdigunean egingo dira astearteroko ibilaldi osasuntsuak. Hurrengoak, ekainaren 16an, 10:30ean frontoitik abiatuta. Eta hala izango da abuztu amaierara arte.

Uda parteko bakardadeari aurre egiteko, zerbitzu honen lantaldeak eskaintza hau luzatzea erabaki du aurten.

Ikasturte amaiera Emakumeon Etxean

Ekainaren 18an, 17:30ean, Kalezarko Pelaioenean. "Udaberriko ikastaroen balorazioa egin, hurrengoetarako proposamen berriak jaso eta Parekidetasun sailean azken hilabeteotan egindako lanaren berri emango da, besteak beste. Amaieran, mokadua izango da".

Antzezlan, Gure Pakeakoen eskutik

"¿Quién ha matado a Verónica?" Binahi antzerki taldearen emaldia antolatu du Gure Pakea elkarteak larunbat honetarako, 18:00etan Sutegin. "Emakume baten gorpua aurkitu dute hondartzan eta poliziak ikerketa egingo du, nola eta nor izan den jakiteko... ikusleen laguntza beharko du kasua argitzeko".



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Enpatxua denon kalterako da

Izaten dira elkarren segidan jatea komeni ez den jakiak, kalte egiten dutelako oso astunak direlako. Adibidez, hanburgesa bikoitz batean ondoren esne-irabiaki oso krematsua hartzea. Edo arrain oso kopeitsua frijিতuta bexamel saltsarekin.

Ba, nik esango nuke, elkarren segidan irakurri eta enpatxua sortzen duten albisteak eta egoerak ere badaudela.

Ekainaren 5eko Berrian hau irakurri nuen lehendabizi: "Langileen erdiak telefonoaren mende bizi dira. Lanaldi partzialeko kontratuak dituzte. Lanaldi osoaren %60 lan egiten dute. Izan daitezke ordu batzuk goizean eta beste batzuk arratsaldean. Izan daitezke azken orduan abisatutako lanaldiak; lana pilatu delako, lankideren batek huts egin duelako... Ahaztu familia, kontziliazioa, bizitza.

Langileen %99 emakumeak dira. Lanaldi partzialeko kontratuak dituztenak dira iristen mila eurora. Ez dute lan hitzarmenik eta sektoreko lan-baldintzak benetan hobetzeko diru dezente gehiago behar da".

Hori irakurri ondoren, beste albiste hau irakurri nuen: "2025. urtean 1.322 milioi euro fakturatu zituzten eta 618 milioi euro irabazi. 1.346 lanpostu berri sortu zituzten, bostetik bat industrian, eta gehiena banaketa sektorean (900 inguru). 406 milioiren inbertsioa egin zuten guztira eta horietatik 218 milioi ikerketa eta garapenera bideratu zituzten. Garai oparoak



Gipuzkoako zortzi zahar etxetako langileak greba mugagabea egiten ari dira, horietatik seitan duela urte erdi baino gehiagotik.

izaten ari dira bankuentzat eta finantza arloak "urte bikaina" izan dute".

Nola barneratu prekaritateaz ari den albiste baten ondoren milioiak aipatzen dituen beste bat? Mundu berean bizi al dira bata eta besteak? Ba bai. Mundu berean eta elkarrengandik oso urruti ez. Lehen albisteak Gipuzkoako zahar etxetako langileei buruzkoa da. Eta bigarrena industria-enpresa mundukoa. Eta gustatu edo ez, lotuta daude. Zeren industria-enpresetan baldintza onetan lan egiten duten eta irabazi handiak jasotzen dituzten askok, familiakoak zahar etxetan dituzte (eta beraiek ere egon daitezke etorkizunean), dirutza ordainduz eta langileak baldintza txarretan jardunez.

Albistean langile batek dio ez dutela egoiliarrekin hitz egiteko eta haiek goxatzeko denbora askorik. "Nik 'aitona' edo 'amona' deitzen diet eta

esan zidaten haiek ez direla nire aitona-amonak, haiek egoiliarrek direla, erabiltzaileak".

Gipuzkoako zortzi zahar etxetako langileak greba mugagabea egiten ari dira, horietatik seitan duela urte erdi baino gehiagotik. Agian gizarteko gainerako sektoreen babesa eta elkartasuna beharko lukete instituzioei eta patronalari presio egiteko. Zeren denok nahi ditugu zahar etxetan "herritarrak" eta ez "erabiltzaileak". Bestela, enpatxatu egingo gara.

"NOLA BARNERATU PREKARIETATEAZ ARI DEN ALBISTE BATEN ONDOREN MILIOIAK AIPATZEN DITUEN BESTE BAT?"

Hitzordu bikoitza
Iñurri elkartearekin

Udaberri parteko "Hil Arte Bizi!" jaia antolatu du Iñurri elkarteak igande honetarako. Aurretik, "Komunitatetik, heriotzaz" zikloan parte hartuko du.

Ekainak 11, osteguna

• 18:00 "Komunitatetik heriotzaz" zikloaren baitan, "heriotzaren aurrean" zuzeneko podcasta Sutegiko auditorioan, Iñurri elkartearen eskutik.

• Zehaztasunak: "Zer pasatzen da bat-batean zure aurrean egurrezko kutxa ikusten duzunean? Zer pasatzen da burutik minbizi hitza esaten dizutenean? Edo hobe esanda, metastasiaz ari direnean? Zuzeneko podcast honetan parte hartuko dutenek badakite zer den heriotzarekin aurrez aurre topatzea. Eider Casanova iñurriaren gidaritzapean arituko dira Eli Bergaretxe, Ana Jimenez eta Beñat Iraola".

• Sarrerak: gonbidapenak aurrez eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.

• Antolatzailea: Udala.

• Laguntzaileak: Bidegin, Iñurri, Hil Arte Bizi, Matia.

Ekainak 14, igandea
Hil Arte Bizi! Jaia

• 17:00-17:30 Liburu aurkezpena Iñurriaren egoitzan.

• 17:00-19:00 Umeentzako eskulanak Artzabalena.

• 18:00-20:00 Hil Arte Bizi bilduma berriaren aurkezpena eta azoka Artzabalena.

• 19:00 Kontzertu akustikoa, Esanezin Artzabalena.

• 19:00 Pizza-jatea Ktxo pizzeriaren eskutik, Artzabalena.

• Informazio gehiagorako: izaninurri.eus

• Antolatzailea: Iñurri elkarte.

ARANKA
BERRIKUNTZAK

• Fatxaden estaldurak • Estalkien berriztatzeak
• Barruko berrikuntzak • Gremioen koordinaketa
• Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

Uraltz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraltz@uraltz.com USURBIL

ZER DIYO?

KERMAN ERREKONDO, IÑAKI AGIRRESAROBÉ ETA LONTXO ZUBIRIA

Xiberoko Botza-ren egoitza berritzeko diru bilketa

U surbil eta Zuberoaren arteko harremanak lantzen urte asko daramagu.

Batzuetan zuberotarrak ekartzen ditugu herrira eta beste batzuetan usurbildarrak goaz bertara. Askotan musikak, kulturak, sagardoak edo dantzak lotu gaituzte. Beste batzuetan, ekonomia edo kultura mailan elkarri laguntzea izan da helburua: Xohütako ikastolaren eraikuntza, Azkorria gaztategiaren sorrera, Seaska barruan Integrazio Batzordea indartzea eta abar luzea.

Orain jakin dugu Xiberoko Botza irriariaren egoitza zaharberitzeko lanetan ari direla eta Euskal Herriko edozein laguntza ondo etorriko zaiela. 1982an sortu zuten herritarrek Xiberoko Botza irratia, elkarte batek kudeatzen duena. Urteotan sekulako lana egin du

Xiberoko Botzak euskara herritarren artean zabaltzen, bertako ekonomia bultzatzen, herrietako elkarteekin mezuak zabaltzen... Zuberoan euskaldun bizitzeko hil ala biziko tresna da. Aldi berean, Iparraldeko Euskal Irrati sarean sartuta dago, Irulegiko Irratia, Gure Irratia eta Antxeta Irratiarekin batera eta Usurbilgo herritarrok Internet bidez entzun dezakegu <https://xiberokobotza.eus/> helbidean.

Orain Xiberoko Botzak Maulen daukan egoitza zaharkituta dagoenez, elkarteak azpiegitura guztiak zaharberitzeari ekin dio: sare elektrikoa, lurzorua, insonorizazioa, isolamendu eta kalefakzioa, ekipamendu osoa... denak eskatzen zuten berritzea eta horretan ari dira. Asmoa da berrikuntza horrekin Xiberoko

Botza irriariak eta bertan ari diren langile eta boluntarioek –lan asko borondatez egiten baitute herritar askok irriari asoziatibo horretan– edukitzea azpiegitura txukun eta egoki bat orain arte egiten duten lana aurrera begira beste urte askotan egin ahal izateko.

Arduradunek jakinarazi dute 70.000 euro kostako dela obra osoa eta hori finantzatzen laguntzeko crowdfunding kanpaina bat ere abiarazi dute, nahi duten herritar eta elkarteek beren laguntza eman ahal izan dezaten.

Usurbildik ere proiektu honi laguntza txiki bat ematea posible dugu, gure neurrian.

Hau sinatzen dugunok laguntza horretan parte hartzea proposatzen dizuegu.

'Xeibrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak**Deklarazioa**

Tellegindegiko Inaxio aspalditxo omen dabil Klaudiaren atzetik, baina ez atrebitzen ezer esatera. Azkenean, nolabait deklaratu behar, eta horrela dio:

-Eeee, Klaudia, zu 'zeatzen' bazera, ni 'zeatuko' naiz.


Eta halaxe 'zeatu' omen ziren biak.

Antzerkia bizi (1992)

Santixabeletan, Debako antzerki talde bat bere emanaldian ari da plazan. Halako batean, eszenan sartu berria den antzezleak antzerkiaren dialogoak jarraituz:

-Zeinek lapurtu ote du? –galdetzen dio bere buruari.

-Pello Aranburu mutilkozkorak, ikuslegotik: Pernandok!



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Ekainaren 3an egin zen sari banaketa Txiribogan.

AEK-k idazketarako iaiotasuna eta sormena saritu du

4. Etumeta Literatura Lehiaketako sariak banatu zituen Etumeta AEK euskaltegiak ekainaren 3an Txiribogan eginiko ekitaldian.

ARITZ LASARTE

Segidan duzue txapeldunaren, bi lan aipatuen eta gainerako parte hartzaileen eta haien sorkuntza lanen berri. Epaimahaia, iazko edizioiko txapeldun Larritz Agirre Goiburuk, Ixabel Agirresarobe Arzallus eta Iñaki Martiarena "Mattin" sortzaileek osatu dute.

4. Etumeta Literatura Lehiaketako sarituak

- Txapelduna: "Hogeita zazpigarrena". Alazne Irazabalbeitia Fariña.
- 2. aipamena: "Zereginek itsututa". Malen Arregi Altuna.
- 3. aipamena: "MMM44". Uxue Zaldua Olarra.
- 4. parte hartzailea: "150 urte eta gero". Iñaki Agirresarobe Arzallus.
- 5. parte hartzailea: "Alferraren itxaropena". Aixa Lopez Alkorta.

- 6. parte hartzailea: "Amona Marisolén ipuinak". Oihana Eizagirre Askarai.
- 7. parte hartzailea: "Arditzen". Garazi Alkorta Beti.
- 8. parte hartzailea: "Lainoetatik zerura". Amaia Otaño Oyarzabal.
- 9. parte hartzailea: "Down under". Aimar Sukuntza Gomez.
- 10. parte hartzailea: "Gutxi gehiago denean". Ibai Marcos Huici.
- 11. parte hartzailea: "Hutsunea". Oihan Errekondo Huici.
- 12. parte hartzailea: "Isilguneen kartografia". Amaya Iglesias Solaberrieta.

AURTEN, ALAZNE IRAZABALBEITIAK ERAMAN DU SARI NAGUSIA

- 13. parte hartzailea: "Niri gutuna". Amaia Salsamendi Galan.
- 14. parte hartzailea: "Zozokume ausarta". Antonio Mangas Trigo.

Aurrematrikulatzeko garaia

Datorren 2026-27 ikasturtera begirako aurrematrikulazio kanpaina abiarazi du jada Etumeta AEK euskaltegiak. Ekainaren 30a baino lehen bideratu ahalko da tramitazio hori telematikoki aek.eus webgunean edota presentzialki Etumeta AEK euskaltegian.

Orain aurrematrikulatzeak hainbat abantaila dakartza, AEK-ren esanetan; batetik, ikasturte honetako prezio bera izateko aukera; bestetik, ordainketa malguagoa; eta taldeak eratzeko orduan lehentasuna izateko aukera. "2026/27 ikasturtean euskara ikasten jarraitu edo euskara ikasten hasi nahi baduzue, aprobe txatu AEKren matrikulazio eskaintza berezia", egin dute gonbita AEK-tik.

Informazio gehiagorako:

Bulegoa: Kale Nagusia, 43
blogak.eus/etumeta-euskaltegia-
aek
607 609 379
usurbil@aec.eus
aec.eus

"Euskara esanindartzeko bidean..." Jakin Jardunaldia

ARITZ LASARTE

UEUk, Jakinek eta Udalak antolatutako Jakin Jardunaldia ekainaren 18an eta 19an egingo da Artzabalaren 'Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak' izenburupean. Hilaren 16ra arte matrikulatu ahalko zarete ueu.eus atarian. Duela lau urte gogoeta eta partekatze gune bilakatu izanaren adibide da Jakin Jardunaldia, UEU-ren zuzendari Aitor Bengoetxea Alkortaaren esanetan. "Euskarak batzen gaitu hemen gauden erakundeak, eta euskararen adierazkortasuna izango dugu aztergai aurten: ziur emankorra izango dela", aurreikusit du.

Beharrezkotzat jo du Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak hitzordu hau, "elkarrekin pentsatzen jartzen gaituztelako: herrigintzarako eta herri eraikuntzarako ezinbestekoa da". Aurtengo gaiari dagokionean, gaineratu du, "garai likido eta ezegonkor, hegemonia-erauntsi eta diglosia-egoera honen aurrean, ezinbestekoa da gutako bakoitzaren esanindarra handitzea, hizkera aberastea, hori ahortzea, zabaltea eta ondorengoei ematea; bestela, hiztun berriek ere laster ikusiko dute ez gara indartsu, eta nekez aseko dituzkera motel samar batek".

Aurtengo edizioak ere, Jakineko ordezkari Haritz Azurmendi Arrueren esanetan, "galdera batzuk eta kezka sozial batzuk" izango ditu abiapuntu; "kasu honetan, euskara bere adierazkortasuna galtzen ari ote den, edo behintzat gero eta gehiago kostatzen ari ote zaigun esanindarra euskaratik biltzea, esparru eta errealitate sozialak euskaratik izendatzea".



Uztailaren 3an ospatuko da Haurren Eguna.

Jaiei begirako prestaketa deialdiak

Hiru aste baino ez dira falta, Usurbil bost eguneko festen zurrunbiloan murgiltzeko.

ARITZ LASARTE

Uztailaren 1etik 5era ospatuko dira aurtengo jaiak. Giroten hasteko lehen deialdien berri jaso dugu jada. Batetik, uztailaren 4an izango den zikiro-janerako erreserbak egiteko hitzordua finkatu dute. Hilaren 19an egingo da txartelen salmenta.

Izen-ematea

Uztailaren 3an ospatuko da Haurren Eguna. Urtero moduan, guraso talde bat ariko da auzolanean goizetik arratsaldera izango diren ekimenean. Hitzordu horien artean, 9:45ean udaletxe atariko plazan abiatuko den jaialdiko goiz partean, aurreko urteen antzera, LH1-4koek ginkanan parte hartu ahalko dute eta LH5-DBH2 artekoek erronkan. Ekimenotan aurrez eman behar da izena, ekainaren 21a baino lehen. Herrian ikasten dutenek ikastetxeetan bertan bideratu ahalko dute izen-ematea. Baina badirenez hainbat gaztetxo Usurbilen bizi arren, herrikanpo ikasten dutenak, bereziki haiei zuzenduriko izen-emate deialdia plazaratu dute gurasook. Antolatzaileek egun horri begirako pare bat ohar plazaratu dituzte; batetik,

“partehartzaile guztiek koardodun zapia ekarri beharko dute, elkarrekin Haurren Eguneko abestia kantatu ondoren, jolasetan parte hartzeko”. Bestalde, ginkanako parte hartzaileek kolore hauetako kamiseta jantzita agertu beharko dute: LH1ekoek urdina, LH2koek berdea, LH3koek txuria eta LH4koek morea. Bai ginkanan baita erronkan parte hartuko dutenei aldatzeko arropa ekartzea gomendatzen diete antolatzaileek.

Datozen deialdiak

Ekainak 17, asteazkena

- 19:00 Jai batzordearen eskutik, aurtengo festen aurkezpen herrikoa Mikel Laboa plazan.

Ekainak 19, ostirala

- 19:30 Uztailaren 4ko zikiro-janerako txartelen salmenta Aitzaga elkartearen. Prezioa: 30 euro (20 eurotan gazteek eta langabetuek).

Ekainaren 21era arte

- Uztailaren 3ko Haurren Eguneko LH1-4koentzako ginkanan eta LH5-DBH2 artekoentzako erronkan izen-ematea: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

Kalezarko jaiak, atejoka

Astebete barru ekingo diogu udako festen denboraldi berriari.

Ekainak 19, ostirala

- 17:00 Buruhandiak.
- 18:00 Txupinazioa eta jaien hasiera.
- Ondoren, auzotarren arteko herri kirolak.
- 20:00 Auzo afaria.
- 00:00 Kontzertuak: Oilar Beltzak + Ganibet + Xsakara.

Ekainak 20, larunbata

- 11:00-13:00 Zirkuola zirku-tailerra (beharrezkoa izango da aurretik izena ematea usurbilkultura.eus-en)
- 16:00 Musa (izena ematea 15:30ean hasiko da)
- Auzoko plazan, Gorritiren Showa.
- 18:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, erraldoi eta buruhandiak Lauburu konpartsaaren eskutik.
- 00:00 Kontzertuak: Bide Batez + DJ Tintz.

Ekainak 21, igandea

- 10:30 Umeen krosa (izen ematea 10:00etan hasiko da).
- 11:30 Jolasak
- Ondoren, buruhandiak.
- 14:00 Umeen bazkaria: janaria norberak etxetik ekarri, edaria eta postrea Jai Batzordearen kontu.
- 16:00 Tailerrak.
- 18:30 Txokolatada.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:30-21:00 DJ Gorka Mendi.

Ekainak 23, asteartea

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24, asteazkena

- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, toka txapelketa.
- 16:30 Buruhandiak.
- 18:00 Sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik, Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak girotuta.

Ikasturte amaiera Zumarten

2025-26 ikasturtea borobiltzeko ikasturte amaierako kontzertu sorta antolatu du Zumarte Musika Eskolak:

Ekainak 10, asteazkena

- 18:30 Zumarte Txiki eta kantu teknikako ikasle gazteen kontzertua Sutegi auditorioan.

Ekainak 12, ostirala

- 18:00 Musika eskolako talde instrumental txikien kontzertua Zumarteko sarrerako plaza txoan.

Ekainak 13, larunbata

- 18:30 Talde instrumentalaren kontzertua frontoian.

Ekainak 14, igandea

- 12:00 Zumarte eta Altsasuko saxo taldeen kalejira Artzabaldik abiatuta.

Ekainak 17, asteazkena

- 18:30 Zumarte Gazte abesbatza eta Kantu Teknikako ikasleen kontzertua Sutegin.

Ekainak 18, osteguna

- 17:30 Musika Txokoa, Musika Mintzaira eta instrumentuetako ikasleekin kalejira Zumartetik abiatuta. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Udaberri Festa Zubietan

Ekainak 11, osteguna

- 16:45 Altxorraren bila.
- 18:00 Apar festa.

Ekainak 12, ostirala

- 17:30 Ekitaldiak:
 - Haurren funky eta antzerki emanaldia.
 - Pintxo eta tortilla lehiaketa.
 - Afarimerienda elkarrekin.
 - Zubietako Talentu bila.
 - Bingo.
- Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.



Gehiengo osoz onartu zuten maiatza amaierako osoko bilkuran, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

Behin betiko onespina, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriari

Herri honen etorkizuna marraztuko duen ibilbide oso luzeko lanketa borobildu zuen maiatzaren 28ko osoko bilkuran udalbatzak. Izan ere, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu zuten gehiengo osoz (EHBildu eta PSE alde, EAJ aurka).

ARITZ LASARTE

Aipatu dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko dio Udalak, hark behin betiko onarpena eman diezaion. Udal gobernu taldetik mugarriztat jo zuten erabaki hau hartzea, "beraz, mugarri bat Usurbilgo herriarentzat, izan ere, HAPOak finkatzen du Usurbilek hurrengo 15 urteotan izango duen garapena". Epealdi luzera begirako garapena da, dokumentuak berak izandakoaren parekoa. Izan ere, "ibilbide luzea izan du" nabarmendu zuen EHBilduk, aipatu osoko bilkurako adierazpenen tartean. 2004-13 urte arterako onarturiko arau subsidiarioak ordezkatzeko 2014ko maiatzean, duela hamabi urte abiarazi zuen Udalak "Usur-

bilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesua", hain zuzen, "Usurbil, oraina da geroa", herritarren parte hartzean oinarrituriko udalerriarren egoerari buruzko diagnosi partekatuarekin. Izan ere, "herritarren parte hartzea eta adostasuna dago", udal gobernu taldearen esanetan, dokumentu horren oinarrian.

PLAN OROKORRAK (HAPO) USURBILEK HURRENGO 15 URTEOTAN IZANGO DUEN GARAPENA FINKATUKO DU

2022ko urrian HAPOa izapidetzeari hasierako onarpena eman zitzaion. 41 alegazio jaso ziren jendaurreko epean, 2024ko ekainean ebatzizirenak. Iazko urtarrilean behin behinean onetsi zuten.

"Garapen orekatua"

"Herri-proiektu bat definitzen du" plangintzak. "HAPOak

"EGUNGO HIRI-EREDUA ZALANTZAN JARTZEN DU ESKUARTEAN DUGUN HAPOAK"

USURBILGO EHBILDU

tresna edo bitarteko bat izan nahi du denon artean eraikitako eta denontzako izango den Usurbil jasangarriagoa, inklusiboagoa, onuragarriagoa, eta bizigarriagoa bihurtzeko, euskara garapen komunitarioaren ardatz izango duena, inor baztertu edo atzean utziko ez duena, herrikideak zainduko dituen, eta usurbildarren arteko berdintasuna eta justizia soziala izango duena aspirazio gisa. Horregatik, egungo hiri-eredua zalantzan jartzen du esku artean dugun HAPOak, eta hirigintza ekofeministaren irizpideak eta begiradak geure eginez, gertutasunean eta ingurumenaren eta herritarren zaintzan oinarrituriko herri eredian sakontzen du".

Hala, planeamendu berriak "hiri garapena mugatzen du" eta "hiri garapenetik babes-tutako lur horietako asko, balio agrologiko altuko lurzorua dira, eta nekazaritza erabileretarako babesten dira". Horrez gain, "onura publikoko mendietan babeserako basogintza aurreikusi da", baita "natur balio handiko eremuak bereziki babestea" ere. Babes neurriekin segita, "Usurbilgo urak babesteko neurriak ere proposatzen ditu" eta gauza bera egiten du "interese historiko-artistiko eta kultureko elementuekin". Energia kontsumoa murriztu nahiz hondakinak gutxitu eta berrerabiltzeko lanketa ere jasotzen du.

"8-80 herria" izateko helburuz, adin tarte zabal horren beharrei erantzuneko dien mugikortasun eredu "unibertsal, jasangarria eta inklusiboagoa" sustatuko du HAPO berriak. Horren baitan dira herrian eraikitako bost hiri-igogailuak, oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak indartzeko lotura berriak, edota herrigunean oinezkoak lehenesteko, herrigunearen kanpoaldean eraikitzea aurreikusitako aparkalekuak. Horrekin batera, garraio publikoa indartzearen baitan

kokatzen dira Kalezarko autobus geltoki berria edota tren geltoki eraberritua. Horrez gain, N634 errepidean trafikoa baretu, segurtasuna handitu eta errepideak sortutako eragozpenak gutxitzeko zenbait esku-hartze proposatzen ditu plan orokor berriak.

Etxebizitzaren garapenari dagokionean, "etxebizitza eredu desberdinak sustatzen ditu HAPOak" usurbildarren beharrei erantzuteko. Garapen orekatua izango du helburu nagusia. Esku-hartze berriak faseka eta epe luzera sustatu nahi dira eta epealdi horretan, herriaren beharren arabera, berrikusten joatea. Babestutako etxebizitzetan usurbildarrak lehenetsiko dira eta udalak eskuratutako etxebizitzak alokairura bideratzen segiko dute, orain arte bezala. "Kale biziak helburu", eraikinen beheko oinak ahal den kasuetan, "merkataritzarako edo ekipamendu publikoko erabilera" emateko ahalegina egingo da. Etxebizitzaren inguruan kalitatezko espazio publikoak sustatzen segi nahi da. Horrez gain, hiri-sistema efizientea diseinatu da eta lantza-eremua hustea saihestea sustatuko da.

Jarduera ekonomikoari dagokionean, "helburua da jada okupatuta dauden industria eremuak berrantolatu eta berreskuratzea, jarduera ekonomiko berriak erakartzeko, ahalik eta lurzoru berri gutxien okupatuz". Horrez gain, "herri merkataritzari balioa eman nahi zaio" eta lehen sektorearen garapen ekonomikoa bultzatzeko "lurraz nekazaritza erabilerako babestea bermatzen da".

Herri zaintzaileagoa izateko bidean, "herrikideak eta komunitatea zaintzeko espazioei garrantzia handia ematen zaio: ekipamendu komunitario sarea eta espazio publiko eta berdeguneen sarea indartzen da". Azkenik, Usurbilgo herrien eta auzoen bizigarritasuna sustatuko du planeamenduak,



Datozen hamabost urteotarako herriaren etorkizuna marraztu du Hiria Antolatzeko Plan Orokor berriak.

haien nortasun eta beharrik lehenetsita.

EAJ: "Anbizio falta"

Dokumentua kontraesan politikotzat eta etxebizitza gabeziari aurre egiteko galdutako aukeratzat jo du EAJk, "etxebizitza ahalmena murrizten duen hirigintza-plangintza" onartu izanagatik. Etxebizitza-ahalmena %15ean (127 etxebizitza gutxiago) murrizten du HAPO berriak EAJ-ren esanetan. "Baina arazoa kopuru horretatik harago doa. Plangintza berriak udalerriko eremu estrategikoetako eraikigarritasuna ere murrizten du, eta nahita mugatzen du Usurbilek etorkizunean izan dezakeen etxebizitza-hazkunderako gaitasuna". Zehaztu dutenez, "EHBilduk aurreko plangintzan aurreikusitako lurzoru urbanizagarriaren %67

"USURBILEN ETXEBIZITZA AHALMENA MURRIZTEN DUEN HIRIGINTZA-PLANGINTZA DA"

USURBILGO EAJ

ezabatu du". Jeltzaleen esanetan, "udal gobernuak borondatez uko egin dio lurralde-antolamenduko tresnek ahalbidetzen duten etxebizitza-ahalmena baliatzeari". Haien esanetan, "onartutako HAPOak kontentzioan eta hazkunde mugatuan oinarritutako udalerriko eredu kontsolidatzen du, eta etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko dauden tresna guztiak erabiltzeari uko egiten dio". Ondorioz, haien iritziz, "HAPOaren anbizio faltak ondorio zuzenak izango ditu etorkizuneko usurbildarren belaunaldietan". Izan ere, "Usurbilek ez du ahal duen guztia egingo etxebizitza gehiago sortzeko".

PSE-EE: "Funtsezko tresna da"

Positibotzat jo du PSE-k HAPOaren onarpena, "herritarrei eragiten dien arazo nagusie-

"ETXEBIZITZA ESKURATZEKO AUKERARI ERANTZUTEKO FUNTSEZKO TRESNA DA"

USURBILGO PSE-EE

tako bati erantzuteko funtsezko tresna dela iritzita: etxebizitza eskuratzeko aukera" hain zuzen. Ildo horretan, alor horretako erroka askok erakunde arteko elkarlana behar dutela iritzita, alor honetako arazoari aurre egiteko "Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin lankidetzeta eta elkarriketa jarrera izan dezala" galdegin dio udal talde sozialistak EHBilduri. PSEren udal bozeramaile Petri Romerok dio "herritarrek konponbideak nahi dituztela, eta ez erakundeen arteko konfrontazioa".

Horregatik, udal gobernuari erantzunkizunez jokatzeko galdegin dio, "etxebizitzaren arloan politika eraginkorrek garatzea ahalbidetuko duten akordioak lortzeko administrazioen artean". Gogora ekarri duenez, Etxebizitza Saila "apustu irmoa egiten ari da etxebizitza-parke publiko handitzeko, alokairu eskuragarria bultzatzeko eta gazteei eta familia langileei etxebizitzarako sarbidea errazteko. Usurbilek ezin du estrategia horretatik kanpo geratu, eta Udalak modu leial eta eraikitzailean lagundu behar du, aukera eta baliabide guztiak aprobetxatzeko".



Joxemi Villafafila, aurtengo kamiseta eta kartelarekin.

"Paseoan jende gehiagok parte hartzea nahi dugu"

JOXEMI VILLAFAFILA ANTOLAKETA BATZORDEKO KIDEA

Duela sei urte hasi ziren "lau ero" Uxue Traila antolatzen, horien artean, Joxemi Villafafila. Ikusgarritasuna lortu nahi dute, eta horregatik jendea gonbidatzen dute paseoan parte hartzera.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola hasi zineten honekin guztiarekin?

Txokolatada bat muntatzeko ideiarekin hasi ginen, baina ikusgarritasun gehiago emate aldera traila antolatzea erabaki genuen.

Nola dago antolatuta eguna?
Lehenengo traila aterako da eta gero ibilaldia.

Zenbat parte hartzailek eman dute izena?
Oraingoz, 240 korrikalari bakarka, 214. pertsona paseorako eta 32 bikote binakako txapelketan. Izan ere, hori da aurtengo berritasunetako bat, binaka lehiatu ahalko dela.

Bikote gehienak mistoak dira. Paseoan jende gehiagok parte hartzea nahi dugu.

Zenbateko luzera du trail probak?
Trailak 12 kilometroko ibilera du eta 630 metroko desnibel positiboa du. Andatzen da ibilbidea eta Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena es-

"22Q13.ORG WEB ORRIAN EGIN DAITEKE DOHAINZA EDO DORTSAL SOLIDARIOA EROSI"

katu behar diogu egin ahal izateko.

Paseoa aldiz, 5,5 kilometrokoa izaten da. Ia Txokoalderaino da ibilbidea, eta gero Santueneatik barrena itzultzen dira.

Nola izaten da lasterketako eguna zuentzat?

"PASEOAN IZENA EMATEN DUTENEI TXARTELTXO BAT EMANGO ZAIE ZOZKETAN PARTE HARTZEKO"

Guretzako estres puntu bat du prestatzen ari garen bitartean, gure buruari dena ondo ateratzea eskatzen diogulako. Dena ondo ateratze horretan beldurrak sortzen dizkizu, baina tira, proba bukatzean jasotzen ditugun esker mezuak niri poztasuna ematen didate. Jai giroa izaten da, eta aurten berrikuntza batzuk jarri ditugu ea jende gehiago animatzen den. Berritasun gisa, Usurbilgo dj bat izango dugu, goiza animatu dezan. Haren musika jarriko du, baina guk duela bi urte herriko musikariekin ateratako Uxue Traileko kanta ere jarriko du. Nahiko festa polita izaten da.

Zein gaixotasun du Uxuek?
Gaixotasuna Phelan-McDermid deitzen da. 22 kromosoma deforma da, eta horrek autismoa izatea, ez hitz egitea eta antzekoak eragiten dizkio.

Boluntarioak lortzeko arazorik izaten duzue?

Ez. Udaletxeak baliabideak uzten dizkigu, tabernek eta komertzioek zozketarako opariak ematen dizkigute. Iaz ez bezala, aurten denek izango dute zozketan parte hartzeko aukera. Iaz, soilik, korrikalariak parte hartu zezaketen, baina aurten paseoan izen ematen dutenei txarteltxo bat emango zaie zozketan parte hartzeko.

Ekainaren 14an egon ezin duenak, badu modurik laguntzeko?

Bai. Phelan-McDermid-en webgunean, 22q13.org, egin daiteke dohaintza edo kronoak eus-en dortsal solidarioa erosi daiteke. Gainera, dohaintza eginez gero, hurrengo errenta aitortpenean kendu egiten dute.

Herritik kanpo oihartzuna duen lasterketa da?

Bai, herrikoa ez den jendea etortzen da lehiatzera, Euskal Herriko punta-puntakoak. Jende asko elkartzen da, baita ibilbidearen ikuskapenean ere.



Uxue Trail lasterketako irteera

Uxue Trail lasterketarako informazio orokorra

Aurten lasterketa luzea kendu dute, eta ibilbide bakarra egin ahal izango da, banaka edo binaka. Paseoak berdin jarraitzen du.

Hilaren 14an egingo den 6. Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioari buruzko zenbait xehetasun aurreratzen hasiak dira antolatzaileak.

Batetik, bertan zehazten da aurtengo edizioan lasterkariak osatu beharko duten ibilbidea.

Bestetik, mendi lasterketa solidarioak erakarrirako parte hartze datuen berri ere jakinarazi dute. Gogoan izan, aurten berritua dator elkartzaren ekimena. Ibilbide bakarra izango da aukeran, baina banaka edota binaka parte hartu ahalko da. Horrez gain,

oinez ere parte hartu ahalko da ekainaren 14an. Kasu horretan, dagoeneko 223 lagunek izena emana dute. Azkenik, ekarpen ekonomikoak eginez ere bat egin daiteke Uxue Trail ekimenarekin, dortsal solidarioaren alde eginez. Aukera horrekin bat egin dute, gutxienez, hamar lagunek.

Izen-ematea zabalik da

Izen-emateak zabalik segiko du ekainaren 11ko arratsaldeko 20:00ak arte kronoak.com atarian. "Oraindik ez duzu izena eman? Ez utzi azken momenturako, sartu kronoak.com-en eta apuntatu!!", egin dute gonbita. Hala eginda, gogorarazi dutenez, "proba

hau solidarioa da, eta zure parte hartzearekin Phelan Mc-Dermid sindromearen ikerketa aurrera eramaten lagunduko duzu".

Lasterketan 18 urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute, 15 urtetik gorakoek ere bai, gurasoen baimena aurkeztuz gero. Uxue Paseoan edozein adin tartetakoak irten ahalko dira. Lasterketarako dortsalak frontoian banatu asmo dituzte bezperan, hilaren 13an, 18:00-20:00 artean, nahiz lasterketa egunean, 08:00-09:30 artean.

Irteera, frontoian

- Ekainak 14, igandea.
 - 09:30 Mendi Lasterketa solidarioa.
 - 10:00 Paseo solidarioa.
- Dortsal solidarioa: presentzialki parte hartu ez, baina diru ekarpenak egin nahi dituztenentzat.
- Oharra: 500 lagunentzako tokiak egongo da.
 - Izen-ematea: ekainaren 11ko 20:00ak arte, kronoak.com.

"ZURE PARTE HARTZEAREKIN IKERKETA AURRERA ERAMATEN LAGUNDUKO DUZU"



ETORKIZUNEAN LANEAN
Ibilbidea zure esku



www.ehu.eus/ikasi

"Arte Ederrak ikasten ari naiz, jada nire etorkizuna marratzen"

Nextor Otaño, Muralgilea



Urte batzuk dira Anguciana (Errioxa) herrian bizi dena. Telefono bidez erantzun ditu NOAUA!ren galderak.

"Nire indarrak ahitzen ari zirela ikusi nuenean, erretiratzea erabaki nuen"

AMAIA ZUBIRIA KANTARIA

Larunbat honetako kantu-jira berezia izango da. Amaia Zubiria omenduko dute eta, ondo bidean, Amaia bera bertaratuko da. Artista zubietarra ez dago sasoirik onenean baina etortzeko ahalegina egingo du. Usurbilgo Kantu Taldeak ekitaldi bat iragarri du 13:30ak alderako. Omenaldia Mikel Laboa plazan egingo diote eta bestela, Sutegiko auditorioan.

IMANOL UBEDA

Zer moduz zaude, Amaia?

Egunaren arabera izaten da. Batzuetan, eguraldi onegia denean, ufa, larritu egiten naiz. Eta beste batzuetan, eguraldia kaskarra izaten denean –gaur bezala–, egun horietan ere larritu egiten naiz.

Hiru egunetik bi txarrak izaten dira niretzat.

Tratamenduan, hortaz.

Diabetesa dut aspaldi. Bihotzekoak ere eman zidan eta hori ere betirako da. Badakizu zer dudan? Adina. Horrek esplikatzeko du dena. 2019ra arte lanean aritu nintzen, etenik gabe. Orduantxe tokatu zitzaizdan jubilatzea, eta ez dakit

berez etorri zen edo, baina denetatik izan nuen jubilatutik ondoren. Harrezkero, egun on-onak ez ditut.

Idazteko tarte gutxi izango duzu orduan.

Tartea? Tartea daukat dena. Ez daukat gogorik! Denbora jada nirea da, inori ez diot

"JUBILATU ETA GERO DENETARIK IZAN DUT. HARREZKERO, EGUN ON-ONAK EZ DITUT"

konturik eman beharrik, baina ez nekien hau gerta zitekeenik. Alperkeriaren kontra borrokatu izan dut beti, eta orain erabat alpertuta nago. Egundak batzuetan ilusionatzen naiz, ideia bat etortzen zait eta hasten naiz, zertxobait egiten dut baina hurrengo egunean kitto, ez dator.

"MILAKA GAUZA POLIT EGIN DITUGU. HORREKIN GERATZEN NAIZ. GAINERAKOA OSO MINGARRIA ZAIT"

Esan diguzunez, larritu egiten zara tarteka. Usurbilgo Kantu Taldeak omenaldi bat prestatu du larunbat honetarako. Bertaratzeko moduan izango zara ala zaila ikusten al duzu?

Oso zaila egiten zait. Batetik, ez dakit nola izango naizen datorren larunbatean. Eta bestetik, ez daramat ondo beste norbaiten menpe egotea. Baina gustura egongo nintzateke bertan, zirrikitu batetik begira, jendearen erantzuna ikusiz... Usurbilera eta zenbait tokietara gustura joango nintzateke, jendearekin hitz egiteko batez ere. Eta benetan ezagutu nahi banaute, horretarako aukera izan dezaten. Dagoen denboran, noski. Dena den, Arantxari-eta esan nien (Kantu Taldekoei), gustatuko litzaidakeela bertan izatea.

Hona etorri zirenean, oso gustura egon ginen, baina duela urte batzuk, nire indarrak ahitzen ari zirela ikusi nuenean, erretiratzea erabaki nuen. Baztertzea erabaki nuen, goxo-goxo, nire gauzetan sartu eta listo. Nik jendea maite dut eta hemen ere, bizi naizen herrian ere bada beste modu bateko jendea, badituzte lagun batzuk. Ez asko, ez hemen ez inon, baina ditudan asko maite ditut.

Usurbildik halako gorazarre bat jasotzeak zer suposatzen du zuretzat?

Kantu Taldeko Arantxari esan nion moduan, nik egin ditudan gauza denak izan dira tajuz ebakiak. Ezer galdetu gabe, niri behintzat inork ezer galdetu gabe. Niretzat sorpresa handia izan zen jendeari hainbeste inporta izatea nire jarrerara, nire ibilbidea. Segidan konturatu nintzen inpaktua nolakoa izan zen. Zubietara txikia da, Usurbil ere bai, eta toki guztietan gertatzen zen zerbait. Baina gauza onak ere bai. Eta milaka gauza polit egin ditugu, eta horrekin geratzen naiz. Bestea oso mingarria egiten zait, eta esplikatzeko hastea ere, ez dut argi ikusten. Badi-

→ rudi esplikazioak eman beharrean nagoela eta ez da hori. Beharra akaso badut, baina horiek nire arazo psikologikoak dira, nire istorioak nire buruarekin.

Larunbat honetako kantu-jiran, zure kantak ekarriko dituzte gogora. Liburuxka bat ere prestatu dute, larunbateko omenaldirako propio egina.

Ni erretxina naiz eta gauzak ondo puntualizatzea gustatzen zait. Omenaldi bat izango da. Ez dakit zergatik izango den, asko maiteko naute baina 40 urtetan ez ditut horren bermeak eduki. Alderdi horietatik ez da inor niregana hurbildu, ez naute telefonoz deitu... Hala ere, Euskadi txikia izan arren, toki askotan egon naiz eta zorte handia izan dut horretan. Horrekin beste guztia tapatzen da, baina nire herriak ez nau sekula deitu. Eta orain, Kantu Taldearen aitzakiarekin, ondo, arrazoi polita da, baina pentsatzen dut seguraski ez dela nik pentsatzen nuen bezala izango. Nire kantak zeintzuk kontsideratzen diren eta zeintzuk ez... Zer egingo zaio. Nik kanta asko eginak ditut eta horiekin ibili naiz azken urteetan, nire kantu-jira partikularrean. Horiek salbatu nahi izan ditut. Azken urteetan ere jendea etortzen zen, baina konturatzen naiz kanta popularrekin hasi nintzela, denonak ziren kantuekin. Kantari guztiak horrela hasi ginen, horiek iturri izan ditugulako. Eta gure etxean gutxien kantatzen zue-nak ere bazekizkien kanta horiek. Eta ondo dago. Ez diot horri uko egiten. Oso ondo sentitzen naiz horrela ere.

Euskal Kantagintza Berria has-tapenetan zela, orduantxe hasi zinen zu ere kantari. Eta garai hartan, kanta tradizionalak abes-teko joera handia zen.

Guk garai hura ezagutu genuen, eta oso gogorra izan zen alde horretatik. Euskaraz eta euskararekin zihoan guz-tiaz arnegatu arazi ziguten.



Amaia Zubiria eta Edorta Amurua, 2012. urteko kantaldi batean. SOINUENEA (OIARTZUN)

Asko kostatu zitzaigun hori bizitzea eta horri buelta ematea. Gure borondatez izan zen, konturatu ginelako etxean bertan altxor handi bat genuela. Eta hori kentzen eta kentzen aritu ziren urteetan eta urteetan zehar. Garai hartan, "elegante" ibiltzea erdaraz abestea zen. Ideia hori gaineratik kentzea eta ideia horri buelta ematea kosta egin zitzaigun baina uste dut gure belaunaldia ere igualtsu ibili dela, ahal zena egiten. Horrek ere sortuko zigun beste egarri klase bat, gure sentimenduak adierazteko hortik edatea, eta horrela hasi ginen. Esan eta sentitu nahi horrek eta euskaraz atera behar horrek ekarri zigun izugarritzko adimen aberatsa, eta hori kolektiboki ere esan daiteke. Baina handik gutxira, konturatu ginen etapa hori balekoa izan zela eta dagoeneko eta-

**"NIRE HERRIAK
EZ NAU SEKULA
DEITU. 40 URTEZ
EZ DA INOR
NIREGANA
HURBILDU"**

pa hori osatua genuela. Beste aro bat zetorkigula, askoz interesgarriagoa, baina zailagoa ere bai. Jendeak kanta ezagunenak hartzen ditu ordea, eta horiekin geratu dira.

Zuk bakarka plazaratutako diskoak ere badituzu, zuk zeuk idatzitako kantekin. Horretaz ari zara, ezta?

Pentsa, 50 urteko ibilbide luzea osatu duzu, eta 40 bat kantu idatzi dituzu, baina ez dira hain ezagunak. Ezagunagoak dira kanta herrikoiak zirenak. Eta horiek ere maite ditut, ez naiz damutzen. Baina nahiko nuke beste kanta horiek ere gogoan izatea.

Zu hasi zinenean, oholtza gainean euskaraz plazaratzea ez zen erraza izango. Emakume bat izanik, are zailagoa.

Zaila ez, ezinezkoa zen! Baina egin egiten genuen, gaiz-

**"NI 16 URTEREKIN
HASI NINTZEN
BAINA GERO
DENBORA LUZEZ
ZIGORTUTA EGON
NINTZEN"**

takeria bat egiten den moduan. Ez genuen ezer esaten etxean, baina egunkarian aipamenik edo ateratzen bazen, eta gurasoek egunkarian irakurtzen bazuten, eskandaluak eta masailekoak debalde genituen. Ezkutuan bezala egiten ziren, baina gero agerian geratzen ziren. Ni 16 urterekin hasi nintzen eta gero denbora luzez zigortuta egon nintzen.

Gogoan dut, lehiaketetan eta hasi nintzenean, Bellas Artes-ekoan eta beste konkurtsoetan, Benito Lertxundi ere han izaten zela, eta orduantxe ezagutu genuen elkar. Dena erdaraz egin behar izaten zen baina berak kantaren artean euskarazkoak tar-tekatzen zituen. Erdaraz hasten zen eta segidan, gelditu gabe, hasten zen euskaraz abesten. Abesti bat edo bi euskaraz abesten zituen, segidan eta lotuta. Eta horrek ikaragarri markatu ninduen.

Geroztik hona, gauza batzuk behintzat aldatu dira, ezta?

Orain ikusten den loraldia ikaragarria da eta maila handia dago. Pozik nago horrekin eta beraiek akaso ez dute jakingo, baina asko maite ditut denak.

Ikastola Eguna, ospakizun eta proiektuen bilgune

Udarregik jolas, proiektu edota bazkari jendetsu artean ospatu zuten Ikastola Eguna ekainaren 6an.

Ikasturte amaierarekin Ikastola Egunarekin ospatu zuten Udarregik ekainaren 6an. LH eta DBH zikloetako ikasleek goiza talde jolasetan igaro zuten, ginkana modukoa osatu zuten herrian barrena.

Proiektuen erakusketa

DBH-koek, gainera, hilabeteotan ondutako askotariko proiektuak ikusgai jarri zituzten. Arte plastikoaren mahai handi batean, ikasleek haien biografia aintzakotzat hartuta sortutako eskulanak ezagu-

tu ahal izan ziren. Denon ongizatera bideraturiko desioak abiapuntu hartuta beste artelan sorta bat ere bazen ikusgai, edota musika talde gogokoena aitzakia gisa baliatuta, eginiko sormen lan ederrak zeuden. Teknikoagoak ziren proiektu interesgarri gehiago ere erakutsi eta aurkeztu zizkieten ikasleek bisitan joandakoei; "elektroetxea" edo "beldarrak" izenekoak, ezkutuko azukreari buruzko ikerlana edota herriko airearen eta ur kalitatearen ingurukoak



Bazkari girotu jendetsuan elkartu ziren ikasleak, langileak eta familiak.

ezagutzeko parada izan zen. Egurdian, HH-koek udaberriari agurra egin nahi izan zioten dantza giro bizian. Euripearan plazaratu ziren, loreak, zuhaitzak, tximeletak, erleak eta enarak.

Jaialdia borobiltzeko, herriko ostalariek prestatu eta gunea atontzen aritutako gurasoek auzolanean zerbitzatu zieten otordua frontoia bete-

tako bazkaltiarrei. Bazkaloste girotua izan zuten.

"HHKOEK UDABERRIA AGURTU ZUTEN DANTZA GIRO BIZIAN"



Elkarlana izan zuten ardatz, ikasleen arteko jolasek.



Udaberriari eskaini zioten HHkoek haien emanaldia.



Ikasleek ginkana modukoan parte hartu ahal izan zuten goiz partean.



DBH-koek hilabeteotan landutako askotariko proiektuak jarri zituzten ikusgai.



Kirol, aisialdi eta hezkuntza arloko eragileak, Udalarekin batera, iragan astean udaletxeko ganbara berrituan bildu ziren.

Eredu propioaren aldeko lankidetzan sakontzen

Kirol, aisialdi eta hezkuntza arloko eragileek Usurbilgo Udalarekin batera, herriko kirol sistema indartzeko hilabeteotan eginiko barne lanketa aurkeztu dute egunotan, agerraldi bidez.

ARITZ LASARTE

Bilan-ildo jorratu dituzte, 2021-22 urte artean herriko kirol eragileekin, kiroldegiko erabiltzaileekin eta herritarrekin eginiko parte hartze prozesutik sortutako 2022-26 urte arteterako Usurbilgo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikotik eratorritakoak, batera jorratzen ari direnak; "Eskola Kirolaren eredu eta kirol klub indartzea". Eskola Kirolaren eredu propioan sakontzeko beharra azpima-

rratu zuten. Izan ere, "azken hilabeteotan, epai batek bertan behera utzi du Gipuzkoan, urte luzez errotua izan den araudia". Ondorioz, "izen-ematek behera egin dute eta bai Udalak eta bai Zirimarako eragileok argi ikusten dugu eredu propioaren aldeko pausoarekin jarraitzeko beharra"; Zirimara proiektuarekin. "Gure ustez, haurrek kirol desberdinak probatzea funtsezkoa da eta hori dasustatzen dugun kirol eredu. Izan ere, kirol aniztasunak gai-

tasun gehiago garatzen laguntzen du eta haurren garapen integrala bermatzea ere laguntzen du. Aldiz, espezializazio goiztiarrak esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukerak murriztu ditzake".

Ildo horretan, urrats berri bat eman nahi dute; "gure asmoa Usurbilgo Eskola Kirolaren herri ituna osatzea da", Euskadiko kirol araubideak ezarritako oinarritzko markoan kokatuko dena. Bertan, "irizpide batzuk finkatu nahi ditu-

gu, helburu eta konpromiso batzuk". Eragileen atxikimenduak bildu nahi dituzte. Hartara, ziotenez, "eragileontzat oinarri sendo bat izango da, legimitatea emango ligu keelako baliabideak norabide zehatz batean antolatzeko, batzuk lehenetsiz eta ezinbestean, beste batzuk ezesteko". Horri lotua dator jorratzen ari diren bigarren lan ildoak; kirol klub indartzea. Izan ere, udal ordezkari Xabat Belokik adierazi zuenez, itun horren helburuen artean izango da, "klub eta eragileen arteko koordinazioa, komunikazioa eta elkarlana" sustatzea.

Hortxe jorratu nahi duten beste lan ildoak, aspaldidanikoa; "herriko klubak indartzeko beharra, herriko klub eta talde guztiak bakarrean biltzen saiatzeko beharra. Herriko klubek babes integrala eta koordinatua behar dute eta uste dugu sinergiarako aukerak badaudela, hau da, badira klubek euren indarra batuta landu ditzaketzen zenbat gai, funtzionamendua hobetzea ekarriko luketenak".

Beste behar komun batzuk ere badira, Ainhoa Azkue Usurbil F.T.-ko zuzendaritzako kidearen esanetan, "klub administrazioarekin eta kudeaketarekin erlazionatutakoak". Horretarako, "baliabideak batzeko aukerak aztertu behar dira, behar horiei elkartuta erantzuteko".

"HERRIKO KIROL KLUBEK BABES INTEGRALA ETA KOORDINATUA BEHAR DUTE"

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Hainbat kulturzale erakarri zituen ekainaren 7ko azokak.

"Usurbilgo kultur ekosistema plazaratzea izan da gure asmoa"

Usurbilgo kultur ekosistema osoa plazaratu zuen ekainaren 7an, Arrobitxulo elkarguneak antolatutako hitzorduak. Herri eragileek haien sormen prozesua agertu, partekatu eta haien artean nahiz herritarrekin harremantzeko aukera eskaini zuen 2. Kultur Azokak.

ARITZ LASARTE

"Lau urteren ostean, kulturaz blaitu dugu berriz ere Dema plaza. Usurbilgo kultur ekosistema plazaratzea izan da gure asmoa; kulturzaleak, sortzaileak, antolatzaileak, komunikazioan dihardutenak eta transmisioan edo hezkuntzan ari direnak erdigunean jartzea", zioten Arrobitxulo elkarguneko ordezkariak azokaren amaieran. 30 bat postuetan osteratxoak egiteko aukera izan zen eta haietan guztietan, "herritarren sormen prozesuak" ezagutu ahal izan ziren. Horren bidez, "sortzailea, sormen prozesua eta honakoak norberarengan eta inguruarengan, herrian edo komunitategintzan duen era-

gina balioan jarri nahi izan dugu, garenaren zati handi bat, gaur gertatu den guztiari zor baitiogu".

Askotariko berrogei bat sortzaile plazaratu ziren; "hasiberriak nahiz ibilbide luzea egin dutenak, sorkuntzatik bizi direnak eta ez direnak, adin tarte ezberdinetakoak...". Denetarik eskaini zioten he-

"ZORIONAK EGITEN DUZUEN LANAGATIK ETA MILESKER AZOKAN PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI"

rriari; "musikaz, bertsoez, moda diseinuaz, eskulanez, ilustrazioez, literaturaz, ikus-entzunekoek, dantzaz, magiaz gozatzeko aukera eman digute". Balantze ezin gozagoa egin zuten antolatzaileek. "Zorionak egiten duzuen lanagatik eta mila-milesker gaurko azokan parte hartu duzuen guztioi".

"KOMUNITATE HONEN GUZTIAREN PARTE SENTIARAZI NAHI IZAN ZAITUZTEGU AZOKA HONEN BIDEZ"

Kulturzaleak, herritarrak ere ahotan hartu zituzten Arrobitxulo elkarguneko ordezkariak 2. Kultur Azokaren amaierako ekitaldian. "Komunitate honen guztiaren parte sentiarazi nahi izan zaituztegu". Azoka interaktiboa sustatu nahi izan zuten; "Usurbilgo komunitatea elikatzea dugu xede hain zuzen". Izan ere, "herri hau zerbait bada, sortzailea eta bizia dela esango genuke eta bizi guztian ureztatzen jarraitu nahi dugu, gero bat eraikitzen gaurdanik".

Garai aldakor eta joera indibidualistak nagusi direnotan, "Usurbilen argi daukagu, kolektiboki eta tokikotik erantzun nahi diogu mundu honi eta herritik eta herriarentzat sortu den proiektu honi bultzada ematea" ezinbestekotzat jo dute. Bide horretan, "gazte astialdia garatzeko, sormena bultzatzeko eta euskal kulturaren transmisiorako erreferentziatzeko gune bizia eta eraikia pixkanaka osatzen bagoaz", jakinarazi zuten. Arrobitxulok "herritarren beharrei erantzuneko dien gune bizia izan nahi du, herritarrak aktibatuko dituen espazioa garai berrietara egokituko dena eta herri ikuspegia izango duen proiektua".

Azoka girotua

Hasieratik amaieraraino, azoka interaktibo eta dinamikoa izan zen ekainaren 7koa. Herri sorkuntzak blaitu zuen hasiera eta amaiera; txalaparta, bertso eta irrintzi kolektiboarekin ekin zieten. Amaitu, 2020ko osasun krisialdian kultur eragileek ezagun egingako abestia kantatuta. Tartean, Maider Alzaga eta Ione Iruretagoiena moda diseinatzailerikideen jantzien desfilea izan zen, ikusmin handia sortu zuena. Herritarrak aritu ziren desfilean. Arrobitxulo elkargunea ezagutzeko ere hainbat ekimen izan ziren; tonbola, serigrafia tailerra edota egitasmoa bera ezagutzeko informazio gunea.



2. Kultur Azokako irudi gehiago noaua.eus atarian eskura ditzakezue.



Kantuan eman zioten amaiera Kultur Azokari.



Ione Iruretagoiena eta bere diseinu lanekin desfilaturiko herritar taldea.



Maider Alzaga, bere jantziekin desfilaturiko herrikideen txalo artean.



Txalapartariak eman zioten hasiera 2. Kultur Azokari.



Sormen prozesuetan barneratzeko aukera izan zuten herritarrek.



Arrobitxulo elkargunea dinamizaturiko tonbola egin zuten.



Arrobitxulo elkargunea ezagutzeko azalpenen txokoa jarri zuten.



Sortaldeek ekainaren 5ean aurkeztu zuen Mikel Laboa plazan, Agerialdeko teilatu gainean martxan duen instalakuntza.

Sortalderen lehen proiektua martxan

"Proiektua zena gauzatu da, gaur pozik esan dezakegu, Sortalderen lehen energia autokontsumorako instalazioa martxan dagoela", adierazi zuen Usurbilgo energia komunitateak, aipatu Agerialdeko teilatuan kokaturiko egitasmoaz hilaren 5ean eginiko aurkezpenean.

ARITZ LASARTE

Bizpahiru kideez osatutako 30-35 bizikidetzaren unitateetan kontsumitu dezaketen adina energia sortzeko gaitasuna dute, Agerialdeko teilatu gainean jarritako ia berrehun panelek. "Instalazio honetan, 82 bazkide gaude konektatuak; 77 etxebizitza, 4 merkataria eta Usurbilgo Udala ere bai", zehaztu zuten. Proiektu honen onurez ohartarazi zuten. "Energia berriztagarriak sortu eta kontsumitzen ditugu, energia herrian bertan sortzen dugu, kanpoko energiarekiko menpekotasuna murriztu dugu. Sortaldeko bazkideak gara energia horren jabeak eta energia horren gainean erabakia eta burujabetza dugu, oso garrantzitsua dena baita". Iaz eraiki zen aipatu instalakuntza. Aurreikusitako bakoaren abia-

razi dute, bidean izandako zailtasunak tarteko, "baina aurten, 2026an gure energia baratza egia bihurtu da. Proiektuak harrera bikaina izan du herrian, hainbestera, non une honetan, plaka fotovoltaiko guztiak hartuta daudela". Horregatik, "Sortalderen lanean ari gara, jada beste instalazio fotovoltaiko bat eskaini ahal izateko bideak jorratzen". Bat egiteko gonbita egin zuten. "Oraindik pau-

"LANEAN ARI GARA, BESTE INSTALAZIO BAT ESKAINTZEKO BIDEAK JORRATZEN"

soa eman ez duzuenoi, gurekin bat egiteko gonbitaluzatzen dizuegu". Eskertza helarazi nahi izan zuten Sortalderen proiektu hau auzolanean eta elkarlanean eraiki baitugu. Lehenik eta behin, eskerrik asko gaur aurkezten dugun instalazio hau ahalbideratu duten erakundeei, Usurbilgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, emandako dirulaguntza eta babesagatik. Baina diruaz haratago, eskerrik be-

"PAUSOA EMAN EZ DUZUENOI, GUREKIN BAT EGITEKO GONBITA LUZATZEN DIZUEGU"

roena bazkideei, 89 horiei. Zuen konfiantza izan da motorra, proiektuan inbertituz eta egitasmoa bultzatuz, modu askotara".

"Indargunetzat dugu bazkideen aniztasuna"

Sortalde Usurbilgo energia berriztagarrien komunitatea 2023an sortu zen, Usurbilgo Udalak lagundutako parte hartze prozesutik. "Irabazi asmorik gabeko kooperatiba integral gisa eratuak gaude", energia kontsumoari nahiz alor horretako zerbitzuak eskaintzera bideratua dago haien jarduna. Bazkideek sostengatzen dute proiektua. Egun, 89 bazkide ditu; 84 kontsumitzaile eta bost laguntzaile. "Indargunetzat dugu bazkideen aniztasuna; norbanakoak, familiak, erakundeak eta entitate juridikoak biltzen ditugu, dela kontsumitzaile edo laguntzaile gisa". Energia komunitatearen helburu nagusia, "herritarrok energiarekin dugun harremana sakonki aldatu eta eraldatzea da". Alor ezberdinetan dihardute lanean. "Honen inguruan eta, lehenik, sorkuntza eta autokontsumo partekatua, gure energia propioa ekoizti eta modu bidezkoan banatzea da; burujabetza energetikoa, energia herritarren eskuetan jartzea, oligopolioekiko mendekotasuna murriztuz". Horrez gain, "beste ekimen talde bat energia eraginkortasuna eta aholkularitzaren inguruan" aritzen da, "energia gastuak nola murriztu ikasteko eta energia pobrezari aurre egiteko bideak jorratzeko". Beste lan-ildoetako bat, "formakuntza eta dibulgazioa dugu, energiaren inguruko gaiak herritar guztiontzat ulergarri egiteko, herritarra ahalduz". Mugikortasun eredu jasangarriagoan eragiten dihardute baita. "Eta, nola ez, trantsizio ekosoziala erronka handi honen aurrean, proiektu berrien sustatzaile eta eragile aktiboa izatea nahi genuke".



Udal zerbitzuak itxiarazi zituen ekainaren 4ko greba egunak.

Bigarren greba eguna izan dute udal langileek

LAB eta ELA sindikatuek hila-beteko tartean deitutako bigarren greba egunarekin bat egin zuten udal langileek ekainaren 4an. Udal zerbitzuak itxita izan ziren egun hartan.

Haien lan-baldintzak hobetuko dituen akordioa galdegiten ari dira. EUDEL-ek asteotan eginiko proposamenari aldarrikapen batzuk falta zaizkiola adierazi dute.



Donostia erdiguneko Etengabeko Arreta Gunearen atarian eginiko mobilizazioa.

"Osasun publikoaren narriadura planifikatua" salatu dute beste behin ere

Salaketa horrekin eta duela sei aste formalki erregistraturiko Donostialdeko ESIaren arduradunarekin biltzeko eginiko eskaeraren erantzun eza tarteko, Donostialdeko

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek mobilizatzen segitzen dute. Hilaren 18an, Lasarte-Oriako anbulatorio atarian deitu dute elkarretartzea, 17:30etan.



LAB-ek ekainaren 4an elkartu zituen sindikatuko Gipuzkoako helduak Sutegin.

LAB sindikatuko Gipuzkoako helduen topaketa Sutegin

Iaz egin bezalaxe, LAB sindikatuek Sutegi hautatu zuen Gipuzkoako helduen topaketarako. Nazioarteko testuinguru nahasia, gutxieneko soldata duinen aldeko mar-

txoaren 17ko greba orokorra, euskararen aurkako oldarraldi judiziala ere hizpideen artean txertatzekoa zuten Sute-giko bilkuran, etxebizitza eta zaintza gaiekin batera.



Sarek ekainaren 6an Arrasaten eginiko agerraldi jendetsua.

Azkena izatea nahi duten manifestazioa iragarri du Sarek

Urtarrilaren 9an Bilbon deitutako manifestazioa azkena izatea nahi du Sarek. "Baina errealitate bihurtzea guztion ahaleginaren araberakoa izango da. Denok Bilbora! Helmu-

ga denak etxera!", deitu zuten usurbildarrak erakarrirako hilaren 6an Arrasaten eginiko agerraldi jendetsuan. Hala, "ibilbide oso baten amaiera" irudikatu nahi dute.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

TXAPELDUN
ARDANGELA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna Iurra 2, 943 49 88 83



Bea Egizabal eta Anduriña Zurutuza, Zubietako elizan eskainitako emanaldian.

"Jo!" antzezlan eskaini zuten Zubietako elizan

Zubieta Lantzen elkarteak "Jo!" antzezlan programatu zuen Zubietako elizan ekainaren 6an. Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal ditu protagonistak. Aspaldi elkarrekin egon

gabeko Sorkun eta Grego lagunminak hezurmamitu zituzten. Elkarrekin topo egiten dute kalean. Kirola egin artean, ikerketa antropologikoa eskaini zieten ikus-entzuleei.



Zuentzat antzerki taldeak maiatza amaieran Sutegin eskainiko emanaldia.

Zuentzat antzerki taldearen hiru sormen lan Sutegin

Gure Pakeak antzerkiari eskainitako arratsaldea antolatu zuen maiatzaren 27an Sutegin. Zuentzat antzerki taldeak hiru sormen lan oholtzaratu zituen. Haietako batek etxeko

lapurreta zuen abiapuntu. Hortik aurrera, pertsonaien arteko desleialtasuna edota sekretuen ezkatzea izan zituen mintzagai umore ukitutik.

Usurbil K.E.-ren bazkideen ohiko batzarra

Ekainaren 20rako deitu dute 10:30ean Potxoenean. Gaiok jorratuko dituzte:

Gai-zerrenda

- Lehen puntua: Lehendakariaren agurra.
- 2. puntua: 2025/2026 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 3. puntua: 2026/2027 denboraldiaren kirolaurreikuspenen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 4. puntua: Diru-kontuak. 2025/2026 denboraldiko balantzea eta 2026/2027 denboraldiko aurrekontuaren aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 5. puntua: Zuzendaritza Batzordearen proposamenak.
- 6. puntua: Bazkideen proposamenak.
- 7. puntua: Galdera-eskaerak.

Usurbil F.T.-ren 50. urteurren bazkariko izen-ematea

Ekainaren 27an Agerialdeko frontoian batuko dira, 14:30etan. Aurrez eman behar da izena eta horretarako epealdi ofiziala zabalik dagoela jakinarazi du orain Usurbil F.T.-k, ekainaren 18ra arte. Futbol taldeak tramitazio hori bideratzeko galdetegi bat eseki du haien sare sozialetan. "Aurre izen-ematea betetakoek lehen-tasuna dute galdetegi ofizial hau betetzeko", ohartarazi dutenez. Aurre izen-emate hartan zehaztutako txartel kopurua aldatzeko aukera izango dela jakinarazi dute. Aurrez izena emandakoekin aurreikusitako lekua erabat beteko ez balitz, "galdetegi hau zabalduko dugu aurrerago eserlekuak bete arte", argitu dutenez. Galdetegi betetzeko zailtasunak izan nahiz argibide gehiago jasotzeko usurbil.uft@gmail.com helbidera idatzi.

Mobilizazioa, pediatria zerbitzu duinaren alde

Ekainaren 11n, 18:00etan Dornostia ospitalaren atarian mobilizatzeko deia egin dute Usurbilen pediatria zerbitzu duina izatearen alde. Hara, Usurbil ospitaleekin lotzen duen BU02 autobus zerbitzuan elkarrekin joateko hitzordua finkatu dute, 16:45ean San Inazioko biribilgunean. "Animatu eta etorri globo bana eskuetan!", egin dute gonbita. Deitzaileek jakinarazi dutenez, "Usurbilgo haurrek eta familiek pediatria-arreta duina, egonkorra eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea dugu. Osakidetza helarazitako ehunka idatzizko kexek ez dute egoera konpontzeko erantzun eraginkorrik jaso. Egoera hau ezin dugu normaltzat hartu. Horregatik, gure haurren osasuna eta osasun publikoaren kalitatea defendatzeko, kalera ateratzen hasteko garaia heldu da".

Dantzari lotutako bi deialdi iragarri dira datozen egunetarako

Orbeldirekin dantza poteoa, ikasturtea borobiltzeko
Udako jaietako erakustaldien zikloari ekin aurretik, ikasturte hau borobiltzeko dantza poteoa antolatu du Orbeldik ekainaren 18an. 18:30etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. "Gerturatu zaitez dantzara Orbeldiko helduen taldeekin batera. Kalejiran, plaza dantzak egingo ditugu elkarrekin dantzatzeko".

"Bizi dantzan!", dantza garaikide taldearen eskutik
Usurbilgo dantza garaikide taldeak urtean zehar eginiko lanketa plazaratzeko emanaldia antolatu du ekainaren 26an, 19:00etan Sutegi atarian. "Mugimendua, sormena eta inprobisazioa gorpuzten dituen dantza pieza. Usurbilgo Dantzalab, dantza laborategiko ikasleek eskainia".

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkate. Interna moduan, orduka, gauzez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako:677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

HILDAKOAK



Emiliano Labrador Roscales
Ekainaren 3an hil zen, 86 urterekin.

ZORION AGURRAK



Zorionak Alaia!

7 urte betetzeagatik mattia! Zure irribarreak argitzen du gure etxea eta gure bihotzak! Maite zaitugu bihotzez!



Zorionak Amets! Ostiralean, 9 urte. Jarraitu berezia izaten, eta futbolari eta pilotari bikaina izaten. Txokolatezko 9 muxu handi, familia osoaren partez!

Pilota Usurbilen

Ekainak 12, ostirala

17:30 Usurbilgo frontoian:

Alebinak binaka 3. Mailan:
-Pagazpe (Uranga-Iturralde)
-Txapagain 2

Infantilak binaka 3. Mailan:

-Pagazpe (Harreguy-Ostolaza)
-Añorga

Usurbilgo Pilota Txapelketa

Usurbilgo gazte mailako txapelketa

Ekainak 12 ostirala, Usurbilen: (Alebin eta infantilen arteko partiden ondoren):
Ligaxkako 3. Jardunaldia:
Tolosa -Azkoitia

Usurbilgo LIII. nagusien txapelketa

Ekainak 12 ostirala, 19:00etan:
Final-laurdenak:
Salcedo-Lazkoz
Sasiain - Arroita

Santxo-Urruzola
Gorostidi-Gorostidi

Entrenatzaile berria izango du Usurbil K.E.-ren lehen nazional mailako taldeak

Usurbil Kirol Elkartetik jakinarazi dutenez, entrenatzaile berria izango du lehen nazional mailako taldeak hurrengo 2026-27 denboraldian; Iñigo Moreno Azkue. Eskubaloi taldeen bilguneak "akordioa lortu du Iñigo Moreno Azkue-ekin lehen nazional mailako taldeko entrenatzaile berria izan dadin datorren denboralditik aurrera".

"Lehen nazional mailan sendotu eta taldeari bultzada berri bat ematera" dator. Eskubaloi taldeen bilgunetik aurreikusi dutenez, "horretarako, nahiz eta agian kanpoko jokalariren bat etorri, bereziki etxeko jendearekin egindako proiektua zuzenduko du, fokua epe motzean baino, epe ertain eta luzean finkatuz".

Julen Lejardi eskubaloi kanpua, ekainaren 22tik 26ra

Julen Lejardi eskubaloi kanpua antolatuko du Usurbil K.E.-k. Aurtengo edizioa ekainaren 22tik 26ra izango dela iragarri du Usurbil Kirol Elkartek, 09:30-12:30 artean. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1-2 mailetakoei zuzendua egongo da. Izen-ematea zabalik dute esteka honetan: <https://forms.gle/gWvYsDbLQuSLLUhh9>

Matrikulazio garaia zabalik da Usurbil KE eskubaloi taldean

2026-27 denboraldian parte hartu nahi dutenek ekainaren 19ra arteko epealdia dute matrikulatzeko. Horretarako galdegegi hau bete behar da: <https://forms.gle/iH8jJRPoFC-qEj3M27>

Aurrerago ate irekien saioa antolatzeak dira. Argibide gehiagorako: usurbilkirolelkar-tea@gmail.com / 610 003 227.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 12

ZUBIETA Udaberri Festa

16:45 Zubietako plazan.

USURBIL Zumarte Musika Eskolaren emanaldiak

Musika eskolako talde instrumental txikien emanaldia.
18:00 Zumarteko plazatxoan.

USURBIL Usurbil F.T.-k 50

urte: erakusketa irekiera
19:00 Sutegin.

LARUNBATA 13

USURBIL Amaia Zubiriari eskainitako kantu-jira

12:00 Mikel Laboa plazan.

USURBIL Binahi antzerki taldearen antzezlan

"¿Quién ha matado a Verónica?" antzezlan.
18:00 Sutegin.

USURBIL Zumarte Musika Eskolaren emanaldiak

Talde instrumentalaren kontzertua.
18:30 Usurbilgo frontoian.

IGANDEA 14

USURBIL Zumarte Musika Eskolaren emanaldiak

Zumarteko eta Altsasuko saxo taldeen kalejira.
12:00 Artzabaldik abiatuta.



Larunbat honetan, 10:00etatik aurrera, Aginagako Eliza Zaharrean.

Egurrezko ontzietan ondutako sagardo onenaren bila

Euskal Herriko zazpigarren txapelketa iragarri dute Alkartasuna Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak. Larunbat honetan ospatuko da, Aginagako Eliza Zaharrean.

Sagardogile bakoitzak zortzi sagardo botila eraman behar du. Usturbilgo Alkartasuna Baserriaren Kooperatibaren egoitzara, ekainaren 11ko 13:00ak baino lehen.

Sariak ez dira makalak. Irabazleak 1.000 euro jasoko ditu. Bigarrenak, 450 euro eta hirugarrenak, 150 euro.

Irabazleek, saria jasotzeko unean, bertan egon beharko dute, bestela hurrengoei emanago zaie saria. Era berean, txapelketara aurkezten denak dastaketan parte hartu beharko du.

Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea. Laguntzaileak: Udala, Eliza Zaharra Elkargunea, Euskal Sagardoa.

Informazio gehiagorako:
sagardoa@ni.eus
630 938 027
alkartasuna.eus

Igandean, Hil arte bizi! jaia Artzabalen

Hil arte bizi! bilduma berriaren aurkezpenarekin batera, murala margotuko da Artzabalen. Egun horretan 17:00etatik aurrera umeentzako eskulanak eta jolasak izango dira. "Gure iñurri baten liburuxka ere aurkeztuko dugu, eguna, kontzertu akustiko batekin amaituz. Zatoz!"

Hurrengo bisita gidatuak

Ekainak 20, larunbata

• 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita, eta organo erakustaldia.

Ekainak 24, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Ekainak 26, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil.

Ekainak 27, larunbata

• 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore elizan bisita gidatua.

Erreserbak:

650usurbilbizi.eus

"Zuhaitzak eta Arbolak Euskal Herrian"

Jakoba Errekondok, Markel Arriolabengoak eta Iñaki Etxebestek idatzi duten liburua datorren asteartean, ekainak 16, aurkeztuko dute Sutegin, 18:30ean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
PARRANDA JATEXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

www.lagunkoiaplaza.eus



lagunkoia plaza

Gero eta adintsuagoa den
gizartearen inguruko doako jarduerak
adin guztietako pertsonentzat

Espero zaitugu!
EKAINAK | **KURSAAL**
16-17 | **aurrean**



BAZKIDEEN TXOKOA



**EHZ FESTIBALERAKO 4 SARRERA
ZOKKETATUKO DITUGU NOAUA!ko
BAZKIDEEN ARTEAN**

Zozketa eguna: **EKAINAREN 15a**



1996 ARBERATZE ZILHEKOA
2026 EKAINAK 26-27-28 **JUIN**

Bazkide egiten bazara zozketa honetan Parte hartzeko aukera izango duzu - 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

OSASUN GIDA

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoiak.
- Emakumearen fisioterapia.

943 53 92 66
623 46 26 58

Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

irati.ibargoiengmail.com

@irati_ibargoieng_fisioterapia

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

www.iratibargoieng.com

FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerria
20160 Lasarte-Oria



- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Usurbilgo
Hortz Klinika

Zure irribarrea,
gure lehentasuna



943 370 878 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa



Osakidetzarekin
hitzarmena

**ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO**

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



MABIOK
FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB · T. 608 671 925 / 943 372 658
mabiokfisioterapia.com

mabiok_fisioterapia

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

publizitatea@noaua.eus